

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Hasiera batean, gure proiektuaren hornitzaile nagusiak gu geu izango gara; produktua sortzeaz, egiteaz eta saltzeaz gu arduratuko baikara. Taldean sortuko diren ideietan oinarrituz lortuko dugu azkazaletako esmaltea aurrera ateratzea, eta asmakizun berritzaile garrantzitsu bat izateaz.



Aurrera begira, produktua baliagarria bada eta arrakasta izatea lortzen badu, bazkide sarea sortuko litzateke, eurek emandako bai diru eta eskulan laguntzaz ahalbidetuko ginateke etekin gehiago eta handiagoak lortzeko. Hornitzaileen betebeharra, kalitatezko eta fidagarriak diren produktuak saltzea izango da, azkazaletako esmaltea %100ean eraginkorra izateko. Hala, azkazaletako esmaltea erosi eta euren konfiantza bertan jartzen dutenek, espero duten erantzuna lortzea izango da helburu nagusia.